

BASAURIKO KIROLAREN UDAL ERAKUNDEAREN ESTATUTUAK.

I. TITULUA

ATARIKO XEDAPENAK

1. artikulua.- Eraketa eta izaera juridikoa.-

1.- Basauriko Udalak, Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikulua eta harekin bat datozenek emandako eskumenak baliatuta, Kirolaren Udal Erakundearen udal zerbitzu publikoa sortu edo eratzeko ahalmena erabiltzea xedatu du, errealitatean dauden beharrizanei erantzuteko.

2.- Aipatutako zerbitzuak ez du izaera ekonomikorik, eta, beraz, hura udal zerbitzu gisa eratzeko, ez da beharrezkoa Toki Korporazioen Zerbitzuen Araubideko 45. artikulua eta hurrengoek aipatzen duten udalekotze prozedurari jarraitzea. Erakundeak kirol izaera, interes publikoa eta gizarte interesa du. Udalak zerbitzu hori emateak ez du esan nahi udalerrian horretarako monopolioa duenik.

3.- Zuzenean kudeatutako zerbitzu pertsonalizatua den aldetik, berezko nortasun juridikoa izango du erakunde autonomoak, Estatutu hauetan zehaztutako helburuak betetzeko; era berean, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu, bai eta finantza- eta funtzio-autonomia ere.

2. artikulua.- Iraupena eta egoitza.-

Kirolaren Udal Erakundeak iraupen mugagabea izango du eta «Instituto Municipal de Deporte- Kirolaren Udal Erakunde» izena izango du. Helbidea: Artunduagako Udal Kiroldegia, Artunduaga auzoa z.g., Basauri (Bizkaia).

3. artikulua.- Xedea.-

Erakunde autonomoaren xedea da Basauriko Udalaren kirol-zerbitzu guztiak eta erakundearen ondarea eratzen duten ondasun eta instalazioak kudeatu eta administratzea, eta erakundearen ondarea handitzea, beste instalazio batzuk sortuta edo Basauriko Udalak emango dituen beste batzuk erantsita.

4. artikulua.- Helburuak.-

Honako hauek dira erakunde autonomoaren helburu nagusiak:

- Kirola eta bere modalitate guztiak babestu, sustatu eta garatzea, bai eta kirola egitea bultzatzea, Basauri udalerriko gizarte-sektore guztiei zerbitzu tekniko eta instalazio egokiak eskainiz.

- Espezialitate ezberdinetan ofizialki aitortutako kirol guztietako erakustaldi eta txapelketak egin daitezela sustatzea, bai eta kirola, gorputz-heziketa eta kirol-hezkuntza guztiontzat hedatu eta zabaltzeko kanpainak egitea ere, erakunde autonomoaren aukerekin bateragarriak diren neurrian.
- Kirol-instalazioak, kirol-guneak eta udal titulartasuneko ekipamendu osagarriak kudeatu eta zaintzea.
- Erakunde ofizial eta pribatuetan beharrezkoak diren eginbide guztiak egitea, udalerrian gorputz-jarduerak eta kirol-jarduerak behar bezala finantzatzea ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoak lortzeko.

5. artikulua.- Araubide juridikoa.-

1.- Honako hauek arautuko dute Kirolaren Udal Erakundea: Estatutu hauek; Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85. artikulua eta hurrengoek; eta horiekin bat datorren gainerako legeriak.

2.- Haren erakunde-autonomiari inolako kalterik eragin gabe, Basauriko Udalaren goi agintaritzaren pean jardungo du Kirolaren Udal Erakundeak —izan ere, Udalari dagokio zerbitzua zuzentzea, eta erakunde autonomoaren jarduerak ikuskatu eta zentsuratzea—. Horretarako, Kirolaren Udal Erakundea Kirol Zinegotzigoari atxikita geratuko da, zeinak langile-gastuen bilakaerari eta giza baliabideen kudeaketari buruzko berariazko kontrolak egingo baititu, bai eta eraginkortasunari buruzko kontrola ere.

3.- Erakunde autonomoak, hura atxikita dagoen Kirol Zinegotzigoaren bitartez, urteko txostena bidaliko dio urtero Udalari. Bertan, emandako zerbitzuak, egoera ekonomikoa, aurreikusitako langile-aldaketak eta, oro har, gertatzea aurreikusi den gainerako gertaera guztiak adierazi beharko dira.

4.- Kirolaren Udal Erakundeak, pertsona juridikoa den aldetik, berezko ondarea izango du, Toki Korporazioen Zerbitzuen Araubideko 86.1 artikuluan azaldutakoaren arabera. Ondare hori osatuko dute I. Eranskinean zerrendatutakoek.

6. artikulua.- Ahalmenak.-

Estatutu hauetako 4. artikuluan adierazitako helburuak betetzeko, erakundeak, Araubide Juridikoarekin bat etorri, eta helburu horiek lortzeko xedea duten ekintzak egiteko ahalmena izango du. Honako eskumen hauek gauzatuko ditu, bereziki:

- a) Egoki iritzitako kontratu, itun edo baldintzak hitzartzea, betiere interes publikoaren, Estatutu hauetan aurreikusitako helburuen, Araubide Juridikoaren edo administrazio egokiko printzipioen kontrakoak ez badira.
- b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta era guztietako laguntzak eskatu eta onartzea, bai pertsona fisikoengandik eta bai pertsona juridikoengandik —izan publiko zein pribatu—.
- c) Jaraunspenak, legatuak, dohaintzak edo bestelako doako ekarpenak onartzea, ez onartzea edo horiei uko egitea, Udalak aurretiaz horien autolikidazioa egin eta gero.

- d) Udalerriko kirol-zerbitzu guztiak —teknikoak zein administraziokoak— antolatzea, eta bertako langileak izendatzea eta haiei ordaintzea, harremanaren izaeraren arabera aplikatu beharreko indarreko legeriaren arabera.
- e) Era guztietako ondasunak eskuratu eta edukitzea, besterentzea, pignoratzea eta horien gaineko era guztietako bermeak eratzea.
- f) Epaitegi, auzitegi eta agintariei era guztietako ekintza eta errekurtsoak jartzea, arruntak zein apartekoak.
- g) Erakunde publiko zein pribatuekin, erakundearen xedeak lortzeko beharrezko lankidetzak hitzarmenak sinatzea.
- h) Dirua maileguan hartzea.
- i) Antzeko izaerako beste edozein ekintza burutzea.

II. TITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

7. artikulua.- Gobernua eta administrazioa.-

Honako organo hauei dagokie:

- a) Kontseilu Errektorea.
- b) Lehendakaria.
- c) Zuzendaritza Orokorra.

I. KAPITULUA.- KONTSEILU ERREKTOREA.

8. artikulua.- Osaera.-

1.- Kontseilu Errektorea erakundeko organo gorena da, eta hari dagokio erakundearen gobernua eta kudeaketa. Honako hauek osatuta dago:

- a) Erakunde autonomoko lehendakaria; Basauriko Udaleko alkatea edo hark eskuordetutako zinegotzia izango da.
- b) Talde politiko guztiak egongo dira ordezkaturak, zinegotzi kopuruaren araberrako proportzioan (lehendakaria barne), hau da, informazio batzordeak eratuta dauden moduan. Hitza eta botoa izango dute. Taldeetako kideak batzarren batera ez badatoz, beren taldeko zinegotziren bati eskuordetu ahal izango diote parte hartzea eta botoa ematea, haien ordezkariak diren.
- c) Idazkaria; zentroko zuzendari kudeatzailea izango da, eta hitza bai, baina botorik ez du izango.

- d) Langileen ordezkari bat eta Basauriko kirol klubetako ordezkari bi, kasu edo egoera berezietan lehendakariak bertaratzeko eskatzen dienean eta, betiere, aurretiaz zentroko zuzendariari galdetuta; hitza edukiko dute, baina botorik ez. Batzar horietan, lehenengo eta behin, ordezkari horiek joateko egondako gaiak aztertuko dituzte eta, ondoren, batzarretik joango dira.
- e) Lehendakariak egoki irizten duenean, udal idazkariak edo hark ordezkatzeko teknikariak, bai eta udaleko kontu-hartzaileak edo berak eskuordetutako funtzionarioak ere, Kontseilu Errektoreari aholkuak ematea eskatuko da.

2.- Kontseilu Errektoreko kide guztiak hala izango dira, Kontseiluko kide hautatu zituztenean zuten lanbide edo ordezkaritza mantentzen duten bitartean. Hori amaitutakoan jardunean jarraituko dute, Kontseilu Errektore berria eratu bitartean.

9. artikulua.- Eskumenak.-

- a) Erakundearen Barne Araubideko arauak eta araudiak onestea.
- b) Plan orokorrak eta jarduteko aldizkako programak onestea.
- c) Lanpostuen zerrenda onestea.
- d) Erakunde autonomoaren langileen ordainsariak finkatzea, indarreko xedapenen arabera; dagozkion kontratuak egitea; eta aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzea.
- e) Zerbitzu publikoari atxikita dauden edo atxiki ahal zaizkion udal ondasunak erabiltzea, eta horiek hobetu eta zaintzeko beharrezko obrak egitea, Udalaren aurretiazko baimenarekin.
- f) Ondasunak doan eskuratzea.
- g) Obra-, zerbitzu- eta hornikuntza-kontratuak baimendu eta agintzea, bai eta Legean aurreikusitako gainerako kontratazio modalitateak ere, urtebete baino gehiagoko iraupena badute edo erakunde autonomoaren aurrekontuaren % 10 gainditzen badute.
- h) Aurrekontua Exekutatzeko Arauen arabera Urteko Aurrekontu Proiektua onestea, lehendakariak hala proposatuta. Ondoren, Proiektua Udalbatzari bidaltzea. Era berean, aurrekontuen arabera kudeaketa ekonomikoa garatzea, aurrekontu, kontabilitate, kontu-emate eta kontrolerako araubideari egokituta, toki korporazioen alor horretako funtzionamendua arautzen duten legeko xedapenen arabera.
- i) Egindako lanaren berri ematea Udalari.
- j) Urtero, erakunde autonomoaren inbentarioa bidaltzea Udalari, Kirol Zinegotzigoaren bitartez.
- k) Kontseilu Errektoreak zentroko lehendakariari edo zuzendari kudeatzaileari eskuordetu ahal izango dizkio berari dagozkion funtzioak, egoki irizten duenean. Eskuordetzea eten egingo da berau eragin zuten arrazoiak amaitzen direnean.
- l) Estatutu hauetan jasotako legeko ekintza guztiak egitea, erakunde autonomoaren gaitasun juridikoaren eta eskumenen arabera.
- m) Erakundearen organoak zuzendu, sustatu eta ikuskatzea.
- n) Prezio publikoak onesteko proposamena egitea.
- o) Zehapena jasotakoek jarritako errekurtsioei erantzutea.

10. artikulua.- Kontseilu Errektorea izendatu eta berritzeko prozedura, eta karguen iraupena.-

1.- Alkatetzako titularra izango da Kontseilu Errektoreko lehendakaria, Basauriko Udaleko alkatearen karguari atxikitako berezko eskubidea delako. Alkateak, erakundean duen karguaren berezko funtzioak berak egikaritu ahal izango ditu, edo, bestela, Udaleko zinegotziren bati eskuordetu ahal izango dizkio, Estatutu hauetako 8.1 a) artikuluan azaldutakoaren arabera.

2.- Alkateak lehendakari izateko eskuordetutakoak —ez bada bere kabuz eskuordetzea amaitzen duela—, alkateak berak karguan irauten duena iraungo du karguan, baldin eta zinegotzia izaten jarraitzen badu.

3.- Udaleko zinegotziak diren kontseilukideak, Udalaren osoko bilkuran egindako bozketa bidez izendatuko dira.

11. artikulua.- Saioen araubidea.-

1.- Kontseilu Errektorea bilduko da lehendakariak deialdia egiten duenean, boto eskubidea duten kontseilukideen herenek hala eskatzen dutenean, edo UAOk xedatzen duenean. Azken kasu horretan, lehendakariak, eskabidea egin eta, gehienez, 48 orduko epean, deialdia egingo du.

2.- Deialdiak lehendakariak sinatuko ditu eta, gutxienez, bi egun lehenago bidali beharko dira, beharrezko agiriekin batera.

3.- Saioak behar bezala eratuta egongo direla joko da:

- Lehenengo deialdian: Kontseilu Errektorearen gehiengo osoa bertan dagoenean.

- - Bigarren deialdia ordubete geroago egingo da eta, orduan, nahikoa izango da kideen herenak bertaratzea; edozelan ere, ezingo dira inoiz egon hiru kide baino gutxiago.

- - Batean zein bestean, guztiz beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea.

12. artikulua.- Saioen prozedura.-

- .1.- Akten artxiboa egingo da eta, bertan, honako hauek azalduko dira: batzarrak hasteko lekua, data eta ordua; lehendakariaren eta bertaratutako gainerakoen izen-abizenak; eztabaidatutako gaiak; eta hartutako erabakiak.
- 2.- Aktak Kontseilu Errektoreko lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte, eta hurrengo batzarrean aurkeztuko dira, onesteko ala ezesteko.
- 3.- Bozketak nominalak izango dira, kontseilukideei edo haien familiei buruzko gaiak aztertzen direnean izan ezik; horrelakoetan, bozketak isilpekoak izango dira eta, gaia eztabaidatu eta bozkatu bitartean, kontseilukide interesduna batzarra egiten den lokaletik kanpo egon beharko da.
- 4.- Erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira. Berdinketa egonez gero, lehendakariak erabakiko du, kalitatezko botoarekin.

II. KAPITULUA.- LEHENDAKARIA

13. artikulua.- Lehendakaritza.-

Basauriko Udaleko alkate udalburua izango da erakunde autonomoko lehendakaria, hau da, bertako kide anitzeko gobernu-organoen lehendakaria. Hala ere, lehendakaritza hori Udalbatzako edozein zinegotziri eskuordetu ahal izango dio.

14. artikulua.- Lehendakariaren eskumenak.-

Honako hauek izango dira lehendakariaren eskumenak eta funtzioak:

- a) Kontseilu Errektorearen batzarren deialdia egitea; bertako buru izatea; batzarrak eten eta amaitutzat ematea; eta bertako eztabaidak zuzentzea.
- b) Erakunde autonomoaren ordezkaritza izatea edozein epaitegi, auzitegi, agintaritza, udalbatza eta erakunderen aurrean, era guztietako espediente, prozedura eta epaiketatan fundazioaren interesen eskabide, erreklamazio edo defentsak egokitu eta salbuespen eginez; hori guztia, esleitu zaizkion funtzioen barruan egin beharko du, ordezkaritza hori burutzeko agente eta botereak eskuordetuz eta, hala dagokionean, Udalaren onespenearekin, Estatutu hauetan adierazitakoaren arabera.
- c) Organo eskudunek baimendu eta hitzemandako obligazioak aitortzea.
- d) Aitortutako gastuen ordainketak agintzea, erakunde autonomoaren aurrekontuan ezarritako muga eta baldintzen barruan.
- e) Ordainketa materialeko tresnak sinatzea (transferentziak, txekueak).
- f) Erakunde autonomoaren asmoa adieraztea dakarten akta eta agiri guztiak sinatzea, eta horretarako obligazioa.
- g) Premiazko kasuetan dagozkion ekintzak aurrera eramatea, eta Kontseilu Errektoreari horien berri ematea hurrengo batzarrean.
- h) Kontseilu Errektoreko kideak falta diren kasuetarako, lehendakariordea izendatzea, lehendakaria funtzio guztietan ordezketo.
- i) Obra-, zerbitzu- eta hornikuntza-kontratuak baimendu eta agintzea, bai eta legean aurreikusitako gainerako kontratazio modalitateak ere, baimendutako muga barruan eta, nolahi ere, urtebete baino gutxiagoko iraupena badute edo aurrekontuaren % 10 baino gutxiagokoak badira.

- j) Langileak kontratatzea, aurrekontuetan egindako aurreikuspenen barruan.
- k) Diruzkoak ez diren zehapenak jartzeko ahalmena.
- l) Kontseilu Errektoreak emandako beste edozein funtzio; edo, Estatutueta aurreikusita egon arren, Kontseilu Errektorearentzat gordeta ez dagoen beste edozein funtzio.

15. artikulua.- Ordezkapenak.-

Lehendakaria ez dagoenean, eta lehendakariorderik izendatu ez bada, alkateak edo hark eskuordetutako kontseilukideak ordeztuko du haren funtzioetan.

III. KAPITULUA.- ZUZENDARI KUDEATZAILEA.-

16. artikulua.- Profilaren definizioa.-

Zuzendari kudeatzailea izango da Kirolaren Udal Erakundeko zuzendaritzaren organo gorenaren titularra. Herri Administrazioetako karrerako funtzionarioa edo lan-kontratuko langilea izan beharko da, edo, bestela, sektore pribatuko profesionala; kasu bietan, goi-mailako titulua eduki beharko du eta, bigarren kasuan, bost urte baino gehiagoko ibilbide profesionala ere izan beharko du.

17. artikulua.- Zuzendariaren kudeaketa-eskumenak.-

- a) Kontseiluaren erabakiak eta lehendakariaren agindu eta ebazpenak gauzatu eta betearaztea.
- b) Zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea, eta langileen zuzendaritza bere gain hartzea.
- c) Erakunde autonomoaren funts eta baloreak erabili eta zaintzea.
- d) Zentroko ondasun higigarri eta higiezinak zaintzea, eta behar bezala kontserbatzen direla bermatzea.
- e) Kontseilu Errektoreari aurkeztu beharreko aurrekontu-proposamena prestatzea, ondoren Udalbatzari aurkezteko.
- f) Zentroak behar bezala funtzionatuko duela bermatzea.
- g) Bere sinaduraren bitartez, betekizun hori baimentzen duten gutunak eta agiriak baimentzea.
- h) Erakunde autonomoak egindako jarduera guztien Urteko Memoria prestatzea.
- i) Goi-mailako txostenak, estatistikak eta proposamenak egitea.
- j) Aurrekontu Orokorren eta Kontu Orokorren likidazioa prestatzea; planen, aurrekontuen eta estrategien betetze-maila jarraitu eta aztertzea; eta desbideratzeak eta errentagarritasuna aztertu, eta neurri zuzentzaileak proposatzea.

- k) Zerbitzuan eta bere instalazioetan egitea komenigarritzat edo beharrezkotzat jotako handitze-, aldatze- eta berritze-lanak aztertu eta proposatzea; halaber, zerbitzua hobetzeko komeni edo behar diren era guztietako material eta tresnak zaindu, mantendu edo ordeztzeko lanak aztertu eta proposatzea.
- l) Udalerriko kirol-politika definitzea, Kontseilu Errektoreak eman dituen eta Udalak, udal babesa garatzean, eman ditzakeen zuzentarauei inolako kalterik eragin gabe.
- m) Bere lantaldeko buru eta koordinatzaile izatea; kideak motibatu, orientatu eta prestatu egingo du, dagozkien erantzukizun eta helburuak beren gain hartzeko.
- n) Kanpo-harremanak, bai gainerako klubekin bai erakunde publiko zein pribatuekin, babesleak bilatzeko.
- o) Fundazioko Kontseiluak beren-beregi ematen dizkion gainerakoak, bere edo lehendakariaren eskumenekoak badira eta, betiere, bere eskumenen eremuaren barruan.

18. artikulua.- Zuzendari kudeatzaileak Kontseilu Errektoreko idazkari gisa dituen eskumenak.-

- a) Kontseilu Errektorearen batzarretara joatea. Ezinezkoa bazaio, lehendakariak, zuzendari kudeatzailearen iritzia entzun ondoren, haren ordezkoa zehaztuko du.
- b) Lehendakariak deialdi bakoitzeko aztergai-zerrenda prestatzeko beharko dituen gaiak eta deialdia bera prestatzea eta Kontseilu Errektoreko kide guztiei bantzea, denbora eta modu egokian.
- c) Batzarretako aktak idaztea eta, onetsitakoan, horiek artxibatzeko agindua ematea. Berea izango da artxibo horiek zaintzeko ardura.
- d) Estatutu honek eskatutako edo lehendakariak agindutako era guztietako ziurtagiriak, erabakien jakinarazpenak eta agiriak ematea.
- e) Kontseilu Errektoreak beharrezko aholkularitza juridikoa izango duela bermatzea, eta aurreko ataletan adierazi gabeko fede publikoko gainerako funtzioak burutzea.

IV. TITULUA LANGILEEN ARAUBIDEA

19. artikulua.- Lanpostua lortzea eta lanpostuak hornitzea.-

1.- Kirolaren Udal Erakundean lanpostua lortzeko modua, legean aurreikusitako edozein sistemaren bidezkoa izango da, hau da, lehiaketa, oposizio-lehiaketa edo oposizio askea, berdintasun —betiere, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraituta—.

2.- Hautapen-prozesuetan, praktikaldia edo prestakuntza-ikastaroa gainditzeko beharra ezarri ahal izango da.

3.- Kirolaren Udal Erakundeak langile nahikoa izango du; langileen kopurua, kategoriak eta funtzioak Kontseilu Errektorean zehaztuko dira, plantilla eta lanpostuen zerrenda onesterakoan.

4.- Lanpostuak hornitzeko, lehiaketa edo izendapen aske sistemak erabiliko dira.

20. artikulua.- Epaimahai hautatzaileak.-

1.- Epaimahai hautatzaileek epaimahaiburua, idazkaria eta, lehendakariak (Kontseilu Errektoreari jakinarazita) izendatutako epaimahaikideak izango dituzte. Langileak hautatzen adituak diren enpresetako ordezkari bat edo batzuk ere izendatu ahal izango dira, aholkulari gisa aritzeko, karguaren berezitasunak hala eskatzen duenean; aholkulari horiek Epaimahaiarekin lankidetzan arituko dira, bai probak zehazten, bai eta izangaiak kalifikatzen ere.

2.- Epaimahai horietan langileen ordezkari bat ere egongo da, sindikatu-ordezkaritzak izendatuta: Hitz egiteko eta botoa emateko izango du. Erakunde autonomoko lehendakaria izango da epaimahaiburua, edo hark eskuordetutako kidea; idazkaria, berriz, Kirolaren Udal Erakundeko zuzendari kudeatzailea izango da, edo lehendakariak izendatutako plantillako funtzionarioa.

3.- Epaimahaiotan alderdi politikoetako ordezkari bat ere egongo da, eta hitz egiteko eskubidea izango du.

4.- Epaimahaia erakunde autonomoko lehendakariak izendatuko du, edo, Kontseilu Errektoreari entzun ondoren, hark eskuordetutako kideak.

21. artikulua.- Ordainsarien araubidea.-

Zuzendaritzako langileen eta gainerako langileen ordainsari-baldintzak zehaztu eta aldatzeko, Udalbatzak edo Kontseilu Errektoreak horren inguruan onetsitako arauari jarraitu beharko zaie. Soldatak eta gainerako zerbitzu-sariak, Udalbatzak erakunde autonomorako onetsitako aurrekontuan islatu beharko dira.

V. TITULUA AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

I. KAPITULUA.- AURREKONTUAK

22. artikulua.- Aurrekontua.-

1.- Erakunde autonomoaren ekitaldi ekonomiko bakoitzerako aurrekontua prestatu beharko da, Udalaren aurrekontua onesten denean hori ere onesteko —izan ere, Aurrekontu Orokorren parte dira Kirolaren Udal Erakundearenak ere—.

2.- Aurreikusitako sarrerekin hornituko da Aurrekontua, eta, egiturari eta izapidetzeari dagokienez, Tokiko Erakundeen Aurrekontuen Araudiari buruz indarreko legerian aurrekontuei buruz xedatutakoa beteko da.

3.- Aurrekontuko Gastuen orriak barne hartuko ditu zerbitzua mantentzeko beharrezko aurreikuspenak, ondasunak eskuratu eta ordezteak, konponketak egitea, langileen arreta, interesak, aurrerakin eta maileguen amortizazioa eta, oro har, programetan aurreikusitako gastu guztiak.

23. artikulua.- Onestea.-

Erakunde autonomoko Kontseilu Errektoreak aurrekontu-proiektua onetsiko du eta, horretarako, lehendakariak eta zuzendariak proposatutako aurrekontua hartuko du oinarri. Proiektua Toki Erakundeko lehendakariari bidali beharko zaio aurreko ekitaldiko irailaren 30a baino lehen, eta aplikagarri zaion aurrekontu araudiak ezarritako edukiaren arabera izan beharko da; gero, Basauriko Udalaren Aurrekontu Orokorraren barruan sartuko da, eta Udalbatzarena izango da hura onesteko aukera bakar eta bateratua.

Kredituak aldatzeko espedienteak, baldin baleude, Udalaren aurrekontu-arauen arabera izango dira.

II. KAPITULUA.- KONTU-HARTZAIETZA ETA KONTABILITATEA

24. artikulua.- Babesa.-

Basauriko Udalari dagokio erakunde autonomoa babesteko gaitasuna, eta honako hauen bidez gauzatuko du: aurrekontua, kontuak, txostena, urteko inbentarioa, prezio publikoak eta zerbitzuak emateagatik tasak eta estatutuen aldaketa onestearen bitartez.

25. artikulua.- Kontabilitatea.-

Erakunde autonomoaren kontabilitatea Tokiko Erakundeen Aurrekontuen Araudiari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera burutuko da.

26. artikulua.- Kontu-hartzailetza.-

KUE Basauriko Udalaren erakunde autonomoa da eta, beraz, kontu-hartzaileak haren jardura ekonomikoaren kontrola egingo du, Udalari egiten dion baldintza beretan, aplika daitezkeen legeetan xedatutakoaren arabera. Erakunde autonomoaren kontuen kontu-hartzailetza hori, Udalaren kontu-hartzaileari edo hark eskuordetutako funtzionarioari emango zaio.

27. artikulua.- Legezkotasunaren kontrola.-

Legezkotasunaren kontrolaren helburu eta norainokoa izango da Aurrekontua Exekutatzeko Arauan zehaztutakoa. Normalki, aurretiazko fiskalizazioa egingo da; Udal Kontu-hartzaileak gauzatu beharko du, edo hark eskuordetu, eta zeregin horri atxikitako funtzionarioak.

28. artikulua.- Kontu ematea.-

Orriak eta kontuak aurreko ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen eman beharko ditu erakunde autonomoko lehendakariak. Udalbatzari aurkeztuko zaizkio, udal kontu-hartzaileak txostena egin ondoren; horrela, Udalbatzak onetsi eta behar bezala izapidetu beharko ditu, Basauriko Udalaren Kontu Orokorra eratu eta onesteko baterako espedientearen barruan.

**VI. TITULUA
ARAUBIDE JURIDIKOA****29. artikulua.- Errekurtsoak.-**

Kontseilu Errektorearen, zuzendari kudeatzailearen edo lehendakariaren ebazpenen kontra ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA jarri ahal izango da, txandaren arabera dagokion administrazioarekiko auzietarako Bilboko Epaitegian, 2 hilabeteko epean, jakinarapenaren datatik aurrera zenbatuta. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 109. C artikuluan xedatutakoaren arabera egin da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 58. artikuluan eta Kode Zibilaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez. Aipatutakoa gorabehera, Araubide Juridikoak baimendutako beste edozein errekurtso ere jarri ahal izango da.

30. artikulua.- Erreklamazio administratiboa.-

Ekintzen egikaritzea zuzenbide pribatuan edo lan-zuzenbidean oinarritzen bada, beharrezkoa izango da erreklamazio administratiboa egitea, bakar-bakarrik, lege-mailako xedapen batek betekizun hori salbuesten badu, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 120-126 artikuluetan baimendutako moduei jarraitu beharko zaie.

VII. TITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA ETA ERAKUNDEA DESEGITEA

31. artikulua.- Estatutuak aldatzea.-

Kirolaren Udal Erakundearen Estatutuak guztiz edo zati batean aldatu ahal izango dira, Kontseilu Errektoreak edo Udalbatza osatzen duten zinegotzien legezko kopuruaren laurdenak eskatzen badute.

32. artikulua.- Onestea.-

Estatutuak onesteko, beharrezkoa izango da Kontseilu Errektorearen eta Udalbatzaren gehiengo soila ados egotea.

33. artikulua.- Desegitea.-

Erakundea edozein unetan desegin ahal izango da, honako arrazoi hauetako batengatik:

- a) Basauriko Udalaren Udalbatzak hala erabakitzen badu, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2. artikulua emandako eskumena baliatuta.
- b) Erakundea sortzea eragin zuen xedea bete bada, edo xede hori zeuden jarduerak eta bitartekoetan aplikatzea ezinezkoa bada, Kode Zibilaren 39. artikulua ezarritakoaren arabera.

34. artikulua.- Itzultzea.-

Erakunde autonomoa desegindakoan, Udalak hartuko du haren tokia, eta berarengana itzuliko dira eratutako ondasunak eta ekarpenak, bai eta zerbitzutik eratorritako mozkinengatik eta berariazko helbururik gabe emandako gainerakoentzako ekarpenengatik egondako gehikuntzak ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Indargabetuta geratuko dira 1996ko abenduaren 27ko osoko bilkuran onetsitako Kirolaren Udal Erakundearen Estatutuak.

AZKEN XEDAPENA.

- 1.- Estatutu hauetan aurreikusi gabeko kasuak, erakunde autonomoko Kontseilu Errektoreak ebatziko ditu.
- 2.- Estatutu hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta biharamunean sartuko dira indarrean.

ERANSKINA

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEAREN ONDAREA

1.- Estatutu hauen xede den zerbitzu publikoari atxiki eta lotzen zaizkio Artunduagako Kiroldegia (Artunduaga auzoa z.g.), Urbiko Kiroldegia (Urbi kalea 2), Soloarteko futbol-zelaia (Soloarte parkea) eta Artunduagako futbol-zelaia (Artunduaga auzoa z.g.).

2.- Erakunde autonomoaren ondare izango dira, era berean, adierazitako berariazko xederako jasotako diru-laguntzak eta jenerotan emandako laguntzak, Udalak, bestelako erakunde publikoek edo partikularrek ematen badituzte.

Bereziki, joko da erakunde autonomoaren ondarearen parte direla Fundaziori lagatako, edo fundazioak eskuratutako ondasun higiezinak, altzariak eta tresnak. Hori dela eta, aipatutako erakunde autonomoaren eraikinean utzitako altzari guztiak harenak izango dira, kontrakorik frogatzen ez bada.

3.- Bukatzeko, erakundearen berezko jarduerak egiteagatik eskuratutako diru-sarrerak ere erakunde autonomoaren ondarearen parte izango dira —esaterako, ikastaroetan izena eman duten pertsonen kuotak eta antzekoak—.

4.- Udalak, ahal duen neurrian eta bere finantza- eta aurrekontu-ahalmenen barruan, erakunde autonomoaren aurrekontuko gastu-partidaren eta sarrera-partidaren zenbatekoa orekatzeko xedea izango duen diru-laguntza emango dio erakunde autonomoari. Era berean, Udalaren balizko laguntza horiek, erakunde autonomoak beste erakunde batzuetako laguntzak eskuratzeko beharrezko eginbideak egitearen mende egongo dira.

5.- Amaitzeko, erakunde autonomoaren ondarea eta finantza-baliabideak, atxiki ahal zaien beste edozein baliabidek ere eratuko ditu.

2004ko urriaren 22an argitaratuta.